



**2017KO MARTXOAREN 10EKO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hamarrean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2017ko otsailaren 24an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 12 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMAIKA MILA LAUREHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (31.430,53 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 17-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea, 2017ko otsailaren 28an, astean 6 egun eta egunean ordu betez, laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.
- 17-11-04 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea, 2017ko martxoaren 10ean, astean 3 egun eta egunean 2 orduz, etxeko garbiketa eta laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.

**Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**

- 14-01-003 zbk.dun esped.: mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea martxoko hilabetetik, onuraduna behin betikoz egoitzan sartu delako.

- 15-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea, urtarrileko hilabetetik, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea duelako.
- 17-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea, martxoko hilabetetik, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea duelako.
- 15-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea, martxoko hilabetetik, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea duelako.

Udal tasa eta zergak ordaintzeko laguntzak.-

2016ko udal zerga eta tasak ordaintzeko, 12 eskatzaileri, bere espedientean jasotako onuradun, kontzeptu eta zenbatekoen xehetasunaren arabera, guztira 3.047,46 €ko laguntzak ematea eta 3 eskatzaileri laguntza ukatzea, laguntza hauek emateko bete beharreko baldintzak ez betetzeagatik.

IV.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK.-

Jasogailuen mantentze-lanen kontratazio espedienteari atxikimendua.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, jasogailuen mantentze-lanen zerbitzua kontratatzeko kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, erabakitzen du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez jasogailuen mantentze-lanen zerbitzua kontratatzeko hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenaren ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuaren ezarritako arauetan.
- 2.- Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea.

Bulegoko materialaren hornikuntzarako kontratazio espedienteari atxikimendua.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, bulegoko materialaren hornikuntza kontratatzeko kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.



Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek hornikuntza hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, erabakitzen du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez bulegoko materialaren hornikuntza kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea.

Material elektrikoaren hornikuntzarako kontratazioaren esleipena.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak 2017ko urtarrilaren 10eko foru aginduaren bitartez, BERDIN S.L. (IFZ.:B20828372) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez MATERIAL ELEKTRIKOA hornitzeko esparru akordioa (X16024) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalarari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.


Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2017ko martxoaren 8an emandako txostenaren arabera proposatu du hornikuntza elektrikoko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak izandako material elektrikoaren kontsumo zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko hirurogeita hiru mila zazpiehun eta hirurogeita hemeretzi euro eta laurogeita hamabost (63.779,95 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua BERDIN S.L. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioak onartzen ditu:

**LEHENENGO.-** "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez material elektrikoa hornitzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X16024) BERDIN S.L. enpresari (IFZ.: B20828372)



esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan. Akordioaren oinarritzko atala da honekin batera doan laburpena, prezio unitarioena eta aldiena, 2011ko irailaren 12koa, bere espedientearen dagoena.

**BIGARREN.-** BERDIN S.L., N.I.F.:B20828372, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, programa ezberdinetan, material elektrikoaren kontsumoen gastua jasotzen duten kontusailen kargura.

**HIRUGARREN.-** Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

#### V.- HEZKUNTZA ETA EUSKARAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Euskara eta Hezkuntza Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartzen du:

##### Gerriko liburu denda.-

2016ko abenduaren 22, 23 eta 24an antolatutako XXVIII. liburu eta disko azokan, saldutako liburuen prezioaren %15a, hau da, 1.986,29 € eta San Benito ikastetxeko ikasleentzako 300 € ematea.

#### VI.- ETXEBIZITZA ETA EKONOMIA JARDUERAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Etxebizitza eta Ekonomia Jarduera Batzordeburuak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartzen du:

Eider Luna Arratibeli (S.tilo ile-apaindegia) 55 € eta Maria Lourdes Fernandez Gonzalori (Noemi fruta denda) 15 € ematea, 2016ko gabonetako kanpainaren barnean, erakusleho lehiaketan, biztanle sarituek jasotako bonoak dendetan erabili ondoren, ekarri dituzten bonuen ordain gisa.

#### VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bederatzi gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO  
UDALA